

Jean Haritschelhar, *in memoriam*

KARLOS DEL OLMO

Ez da lehenengo aldia, zoritxarrez, elkarreak aldizkari honetako orriak itzultzaile zendu berri bat omentzeko erabili izan dituen, iaz Txillardegi izan baitzen ohoratua. Aldizkariak gaur egungo euskaltzainburu eta EIZIEko kide Andres Urrutiari eskatu dio lerro batzuk paratzeko berak baino arinago ardura hori izan zuen itzultzaile zenuari buruz, itzulpengintzaren ikuspegitik bereziki.

Aurkezpen horren osagarri, Haritschelharrek berak *Itzulpen Antologia II* liburu-rako hautatu zuen lana ekarri dugu aldizkarira, hori delakoan omenaldirik onena. 1996an ohorezko bazkide izendaturiko bazkideen lan eredugarri batzuk bildu zituen EIZIEk antologia horretan, Haritschelharrena tartean.

Antologiaren sarreran, elkarteren aurreneko lehendakari eta bera ere ohorezko bazkide izandako Juan Mari Lekuonak idatzi bezala, “Bere itzulpengintzan, iker-

ketaren aldetik beti ere, azpimarratzekoa da Etchahunen poesi guztien frantseserako itzulpena. Literatur arloan, batez ere poesia-ri dagozkionetan, agertzen du bere maisutasuna, berehala nabarmentzen delarik, itzultzerakoan ere bai, bere zehaztasuna, bere aberastasuna, bere iparraldekoen trebezia”.

Karlos del Olmo

Jean Haritschelhar, itzultzaile

Jean Haritschelhar-en lanak ugari aipatu dira egun hauetan, batik bat euskalgintzaren arloan. Berrikitan zendu zaigun euskaltzainburu ohiaren biografian, hala ere, badira beste aurpegi batzuk eta horien artean, zer esanik ez, itzultzailearena.

Hori gogoratzeko bidea Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteen Elkarte, EIZIEren eskutik dator, Jean Haritschelhar bera ohorezko bazkide izendatu baitzuen 1996. urtean. Izendatu ez ezik, haren itzul-

tze lanaren erakusbidea ere eskaini zuen, *Itzulpen Antologia II* liburuan, bertan argitaratu baitzen Jean Haritschelhar-en testua, hain zuzen, Etxahun Barkoxeko *Ahaide de-lezius huntan* olerkiaren frantsesezko testua.

Izatez, Jean Haritschelhar-ek ondu zuen doktorego tesiaren zatia zen hura. *L'œuvre poétique de Pierre Topet-Etchahun* zuen izena eta Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian agertu zen 1969-1970 urteetan.

Bertara ekarri zituen Jean Haritschelhar-ek *Etxahun* herri olerkari zuberotar handiaren olerkiak, XIX. mendean eginak, eta gerora ere inprimaketan zein ahoz aho-kantu eta bertsoetan ezagunak izan direnak euskaldunentzat. Jean Haritschelhar-ek edizio kritikoa apailatu zuen eta bertara gehitu olerkien frantsesezko itzulpena.

Jakitun zen Jean Haritschelhar zer itzulgai mota zuen aurrean eta horren zailtasunak zer-nolakoak ziren. Olerkiak eta, areago, herri literaturarenak, ez ziren aise eta erraz moldatzekoak frantses hizkuntzaren bidez. Berak honela aitortu zuen liburuaren sarreran bertan, hitz argigarri hauekin:

Certaines, purement grammaticales ou de traduction littérale, expliquent la traduction qui accompagne chacun des poèmes dans le cas où la traduction concise que nous avons adopté ne rend pas compte de toutes les subtilités que contient le texte basque. Ainsi, non seulement les souletins mais surtout les manex pourront saisir les poèmes d'Etchahun dans leur intégralité.

Beraz, xede informatiboa zuen itzulpen horrek, eta ez poetikoa, bertsoen nahia eta mamia eskuratu nahi baitzion Jean Haritschelhar-ek frantsesezko testura hurbiltzeko asmoa zuen irakurleari, modu horretan testuaren ulergarritasuna erraztu egiten zuela.

Oso agerikoa izan ez arren, bada Jean Haritschelhar-ek egindako beste itzultze lanik, Euskaltzaindian zein akademiatik kanpora ere. Bere belaunaldi kide askoren antzera, hark hainbat agiri eta barne-testu euskaratu behar izan zituen besterik gabe eta premiak eraginik, besteak beste, Baigorriko alkatea zela eta, berak argi adierazten zuenez, ezkontzaren formulak, bertakoak euskaraz ezkondu ahal izateko, nahiz eta gero frantsesez jaso behar, nahitaez, ezkontzaren agiriak. Halakoak egiterakoan Jean Haritschelhar-ek beti erabili zuen mendez mende moldatu eta Iparraldeko euskararen eremuan sustraiturik dagoen euskal diskurtsoaren inguruko egitura berezia, jatorrizko testua nahiz xede hizkuntzan emandakoa era ezin egokiagoan estekatuz.

Hitz batez esateko, *euskara-frantsesa/frantsesa-euskara* (*gaztelania ere alboratzeke*) itzultzaile duina, Iparraldeko tradizio diskurtsiboa erro-errotik erabiltzen zuena eta horren bidez lortu zuena itzulpengintzaren berebiziko jomuga, alegia, pertsonen, hizkuntzen eta kulturen arteko arartekotasuna bermatzea.

Andres Urrutia

Ahaide delezius huntan

JEAN HARITSCHELHAR

(Baigorri, 1923-2013)

Baionako Euskal Erakustokiko zuzendari, Bordeleko Unibertsitatean irakasle (gaztelania, euskara eta euskal literatura) eta Euskaltzainburu izan zen. Hainbat lan idatzi zituen euskal literatura klasiko eta tradizionalari buruz; haien artean, 1969an egin zuen doktore-tesia: *Le poète souletin Pierre Topet-Etchahun*. Horren atal bat dugu antologian: euskarazko jatorrizkoa eta frantseserako itzulpenarekin.

Ahaide delezius huntan

HERRI KANTA

1. Ahaide delezius huntan bi berset gei tit khantatü,
Ene bizitze mulde gaitza münd'orori deklaratu:
Ihun sos bat ebatsi gabe ez eskandalik txerkhatü,
Hamar urtheren galeretan nahi ükhen naie sarthü.
2. Ebili nüzü kharriketän, ene bidaje handitan,
Amorioz nindaguelarik xarmagarriren huñetan,
Ixterbegiak zaudelarik eia nun sarthüren nintzan,
Bena haien ororen gatik, ni maitiaren lekhian.
3. Zelietako Jinko Jauna, zützaz nüzü estonatzen
Zerentako hain desbardin gütüzün heben egiten;
Batak indarrrik gabe, bestiak zentzü gabe, bethi praube agitzen
Mündü huntaik bestila baiko, han denak gira bardintzen.
4. Mündü huntan hanitx persuna bada malerus izanik,
Bena ez beren etxequak nik bezañ krüdel ükhenik,
Ene amak bost lekhütako primü nündüzün sorthürrik,
Igorren naie mündüz mündü deüs nütinäk idokirik.
5. Jinkuak maradika beza Gaztelondo Topetia
Eta neskatiä praubetan amorio ezartia!
Batetan ezarri nilakoz, izan niz desprimütia,
Egüzaitak egin zereitan ordeñiaren haustia.
6. Hazi behar nian phüntian traballatzen nintzan hasi,
Desprimü-eraz nentzan lotsaz, nahiz aita trenderazi;
Osagarria hari khausitü nahiz benin galerazi:
Orai agitzen zitadazüt segür hiltzia presuntengin.

Sur cet air délicieux

JEAN HARITSCHELHAR

1. Sur cet air délicieux j'ai l'intention de chanter deux strophes,
De déclarer à tout le monde mon genre de vie pénible.
Sans avoir volé le moindre argent nulle part, sans avoir cherché de scandale,
On a voulu me mettre aux galères pour dix ans.
2. Je suis allé de par les rues dans mes longs voyages;
Quand j'étais en amour, aux pieds de ma belle,
Mes ennemis guettaient pour savoir où j'entrerais,
Mais en dépit d'eux, j'allais chez ma bien-aimée.
3. Seigneur Dieu du ciel, je m'étonne de vous,
De ce que vous, nous faites ici bas si inégaux;
Les uns manquant de force, les autres de bons sens, se trouvant toujours pauvres,
Dès que nous sommes passés de ce monde à l'autre, là-bas nous devenons tous égaux.
4. En ce monde, il y a beaucoup de personnes qui ont été malheureuses
Mais leurs parents n'ont pas été aussi cruels que les miens;
Ma mère m'a enfanté héritier de cinq maisons;
On m'envoie de par le monde, m'ayant ôté tout ce que je possédais.
5. Que Dieu maudisse la maison Topetia de Gaztelondo
Ainsi que l'amour conçu pour les jeunes filles pauvres;
J'ai été déshérité pour avoir aimé l'une d'entre elles,
Mon parrain avait annulé le testament qui était en ma faveur.
6. Dès que j'eus besoin de me nourrir je commençai à travailler
Voulant attendrir le cœur de mon père, craignant qu'il ne me déshéritât;
En voulant me mettre dans ses bonnes grâces j'en perdis la santé,
Maintenant assurément il m'échoit de mourir en prison.

7. Ene aitak destinatia ükhen nian espusatü,
Erranik nahi zeitadala primajia errendatü.
Ene maite (fidel) ezagütia nik horre gati kitatü,
Eta beste maiterik zian bat ene phena gei hartü.
8. Bi hilabetez egon niz presu ene emaztia gati,
Ta hura xalanteki etxen ni han nintzanez jelosi;
Ber denboran ene anaiek (defautez) prozesa jüja-erazi,
En'hunaren juitü nahiz eta ni kundenerazi.
9. En'anaie erüsatia, menjatü hitzaiket aski,
Ene lehen eritajia orotan fraudaz ebatsi;
Orai khorpitzeko xangriek behar nie eihar-erazi:
Behar diat presuntegian hil edo amuinan bizi.
10. Ene seme nik primütia, egin deitak traditzia,
En'anaiak zeitadania kita-erazi Frantzia.
Adixkidez libreraz nentzan egin neian bilaiztia,
Eta hik eni hen ixilik egin kundeneraztia.
11. Musde Deffis jaun presidenta, eta Musd'Ündürein jauna,
Galdürik nintzan enialakoz semiak zian deseña;
Zien leterak eraman baleizt Paueko jaun jüjen gana,
Libratzen zian bere aita, bizia zor zereiona.
12. Paueko jaun jüjek balie ene jüjatzen jakintü,
Nun etzien ene etxaltia frauderiaz akeditü
Enündia kundeneraziren, bena semik ni traditü
Eta ni kundenerazi nai nahiz hunaren juitü.
13. Oi jüstizia injüstua, igorri naizü herriti,
Eni ebatsi etxaltian den anaiaren ihesi!
Ene semik ez nahi hazi, nik hari eman huneti:
Behar diat presuntegian hil edo amuinan bizi.
14. Bi urthe igaran ditiat Españan pelegri gisa,
Hire ganik deüseren ezin ükhenez biziaren bilha;
Orai hiri sokhorri galthoz jin nük ezin ebilila,
Hik igorri ene etxerik erranik han deüs enila.

7. J'épousai celle que mon père m'avait destinée
Car il m'avait dit qu'il voulait me rendre le majorat;
Pour cela, j'abandonnai la bien-aimée que je connaissais
Et je pris pour mon tourment une autre qui aimait ailleurs.
8. Je suis resté en prison pendant deux mois à cause de ma femme;
Elle, elle était à la maison avec ses amants; jugez si j'étais jaloux;
Pendant ce temps mes frères firent juger le procès par défaut,
Voulant jouir de mon bien ils me firent condamner.
9. Mon frère rusé, tu t'es sans doute assez vengé sur moi,
Tu m'as dérobé par fraude mon premier héritage en entier,
Maintenant les chagrins de la vie doivent me dessécher,
Je dois mourir en prison ou vivre en mendiant.
10. Mon fils dont j'ai fait mon héritier, tu m'as trahi,
Lorsque mon frère m'a fait quitter la France;
Je m'étais dépouillé en ta faveur pour que tu me fisses libérer par des amis,
Et toi sans rien leur dire, tu m'as fait condamner.
11. M. le Président Deffis et Monsieur d'Andurein
J'étais perdu parce que je n'avais pas le même dessein que mon fils,
Si, pour mon bien, il avait porté vos lettres à Messieurs les juges de Pau,
Il faisait libérer son père auquel il devait la vie.
12. Si Messieurs les juges de Pau avaient su juger pour moi
De sorte que l'on n'eût pas acquis ma propriété par fraude,
Tu ne m'aurais pas fait condamner, mais mon fils m'a trahi
Et il m'a fait condamner, voulant jouir de mon bien.
13. Oh! justice injuste, vous m'avez chassé du pays,
Fuyant mon frère qui vit dans la propriété qu'il m'a volée;
Mon fils ne voulant pas me nourrir avec le bien que je lui avais donné,
Je dois mourir en prison ou vivre en mendiant.
14. J'ai vécu deux ans en Espagne comme pèlerin,
Cherchant de quoi vivre, ne pouvant rien obtenir de toi;
Maintenant, tombé dans la misère, je viens te demander secours,
Tu m'as renvoyé de chez moi, me disant que je n'y possédais rien.

15. Bi hilabete igaran tiat sabaietan hotzez ikhara,
Ezpenündia nahi ützi ene sükhaltin sartzera,
Ez hik ez hire emaztiak ene ohian lotzera,
Jüstuago zia lo zedin hire küñata izorra!
16. Ene etxalte zabalian ezari ninak hireki,
Gai oroz barnen sar enendin, borthak dereitak esteki,
Ezpeitzeion phenaik egiten hunak ützirik zieki,
Ene amuinan igortiak, bi athorra xiloeki.
17. Adio erraiten dereizüt, ene phena-gei hartia,
Bena orai zü zütüdano, ene kontsolü guzia;
Athorra bat eman deitazü destrenpien erekeitia
Ikhara zinandialarik errenak jakin, trixtia.
18. Zortzi urtheren behar deizüt erran dolorez adio;
Haboro bizitzen ezpaniz, Josafatera artino.
Inkas bizitzen bagirade biak mündian haboro
Algarreki izanen gira Jinkuak pharti artino.
19. Semiari nereionin egin ene photeren üztia,
Beste haurrer niezün egin ene borthen zerratzia,
Eta zü ezari neskato etxen, malerus trixtia,
Aita amak so egizie zer den haurrer bilaiztia.
20. Adio erraiten deiziet ene haur dotherik gabik,
Ene süberte malerusak, trixtik, mündin ezarririk
Ene gisa har-itzazie, pazentziaz zien kürütxik
Eta salbamentia txerkha, hetzaz imita Jesüs Krixt.
21. Adio dereñat erraiten, ene alhaba barkhotxa;
Etxeki-ezan familian orai artinoko kundüta,
Küñat küñater eman beriak, haurrer Jinkuaren kreinta
Senharraren hun izan eta zaharraguak errespeta.
22. Etxahun, nausi famatia, galdü dük libertatia;
Orai hiri erriz ari dük oi hire ixterbegia;
Eta orai hir'ezin bestia, harekila trixtezia,
Behar amuinan hasi edo pelegri juan bestela.

15. J'ai vécu deux mois gelottant de froid dans les granges
Car tu ne voulais pas me laisser entrer dans ma cuisine,
Ni toi, ni ta femme ne vouliez me laisser dormir dans mon lit;
Il était plus juste qu'y dormît ta belle sœur engrossée.
16. Dans ma vaste propriété celle que j'ai mise avec toi,
Chaque nuit, pour que je n'entre pas, m'a verrouillé les portes,
Car ce ne lui faisait aucune peine, les biens vous ayant été laissés,
De m'envoyer mendier avec deux chemises trouées.
17. Je vous dis adieu, vous que je pris pour mon malheur,
Mais vous, toute ma consolation tant que je vous ai;
Vous m'avez donné une chemise pour remédier à mes maux
Tandis que vous trembliez que votre bru le sût, pauvre femme!
18. Plein de douleur je vous dis adieu pour huit ans;
Si je ne vis pas davantage, adieu jusqu'à (la vallée de) Josaphat,
Au cas o nous serions encore tous deux de ce monde
Nous vivrons ensemble jusqu'à ce que Dieu nous sépare.
19. En laissant mes pouvoirs à mon fils
J'avais fermé les portes à mes autres enfants
Et j'avais fait de vous une servante chez vous, pauvre malheureuse!
Parents, jugez ce qu'est se dépouiller en faveur des enfants.
20. Je vous dis adieu, mes enfants sans dot,
Que mon sort pitoyable a rendus malheureux en ce monde;
Comme moi, prenez en patience vos croix
Et cherchez le salut; par elles imitez Jésus-Christ.
21. Je te dis adieu, ma fille unique!
Garde en famille la conduite qui est la tienne jusqu'à ce jour;
Donne à tes beaux-frères et belles sœurs ce qui leur revient, à tes enfants la crainte de Dieu,
Sois bonne envers ton mari, et respecte ceux qui sont plus âgés.
22. Etchahun, maître renommé, tu as perdu la liberté,
Il se rit maintenant de toi, ton ennemi;
Te voilà maintenant dans la misère, et aussi dans la tristesse.
Tu dois commencer à mendier ou, sinon, aller en pèlerinage.

23. Zelietaiko Jinko Jauna, zuri gomendatzen nüzü,
Ezi ene best'erresursak or'akabi ziztadatzu;
Libertate, hunak, uhurik galdürrik agitzen nüzü,
Eta khorpitzaren gal lotsaz, mündüz mündü banuazü.
24. Izan nüzü Jundane Jakan, Loretan eta Erruman;
Jente hunetzaz beinündüzün zük hazi ene errundan.
Orai ere phartitzen beniz zure othoitzez ber gisan
Haietzaz bizi-eraz nezazü malerus nizan denboran.
25. Khantore hoiek huntü nütin Ünhürritzeko olhetan,
Errumarat juiten nizala erraiten beitüt hoietan;
Maleruski ni hil banendi bidaje lazgarri hortan,
Ziberuan khanta-itzazie, ene orhitzapenetan.

23. Seigneur Dieu du Ciel, je me recommande à vous
Car toutes mes autres ressources sont épuisées;
le reste, ayant perdu liberté, biens, honneurs
Et, craignant de perdre la vie, je vais de par le monde.
24. Je suis allé à Saint-Jacques, à Lorette, et à Rome,
Vous m'avez nourri par les bonnes gens dans mon périple;
Si je pars à nouveau, voulant vous prier de la même manière,
Faites-moi vivre par eux en ces temps de malheur.
25. J'ai composé ces chansons sur les pâturages d'Unhurritze
Où j'annonce mon départ pour Rome;
Si, par malheur, je mourrais en un si pénible voyage
Chantez-les en Soule, en souvenir de moi.

Jean Haritschelhar, *in memoriam*

En homenaje a Jean Haritschelhar, miembro honorífico de EIZIE recientemente fallecido, publicamos en estas páginas un breve texto escrito por Andres Urrutia, actual presidente de Euskaltzaindia (Real Academia de la Lengua Vasca), acerca de la labor traductora de quien fue su predecesor en el cargo.

Reproducimos, asimismo, una de las traducciones de Haritschelhar, anteriormente publicada por la asociación en *Itzulpen Angologia II*, antología que recogía las obras de las personas nombradas eméritas en 1996. Haritschelhar seleccionó para la antología su traducción al francés de los versos de Etchahun (*Abaide delezius huntan*).

En la introducción de la citada antología, Juan Mari Lekuona (primer presidente de EIZIE, y también socio honorífico), destacaba del fallecido su precisión, riqueza y hábil manejo de la tradición literaria de los dialectos orientales a la hora de traducir.

Jean Haritschelhar, *in memoriam*

En hommage à Jean Haritschelhar, membre d'honneur d'EIZIE récemment décédé, nous publions dans ces pages un bref écrit rédigé par Andres Urrutia, président actuel d'Euskaltzaindia (Académie de la Langue Basque), à propos du travail de traduction de celui qui le précéda dans sa charge.

Nous reproduisons également l'une des traductions de Haritschelhar, publiée auparavant par notre association dans *Itzulpen Antologia II* (Anthologie de traductions II) qui recueillait les œuvres des personnes nommées émérites en 1996. Haritschelhar choisit pour cet ouvrage sa traduction en français des vers du poète souletin Etchahun *Abaide delezius huntan* (Sur cet air délicieux).

Dans l'introduction de cet ouvrage, Juan Mari Lekuona (premier président d'EIZIE et également membre d'honneur) soulignait la précision, la richesse et l'habileté dans l'utilisation de la tradition littéraire des dialectes orientaux dont faisait preuve son confrère au moment de traduire.

Jean Haritschelhar, *in memoriam*

In homage to Jean Haritschelhar, the late honorary member of EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpreteten Elkarte, the Association of Translators, Correctors and Interpreters of the Basque Language), we publish here a brief text written by Andres Urrutia, the present president of Euskaltzaindia (the Royal Academy of the Basque Language), on the corpus of translation by Haritschelhar, who preceded him as president. We also include one of Haritschelhar's translations, previously published by EIZIE in the anthology of translations *Itzulpen Antologia II*, a collection of works by EIZIE members awarded emeritus status in 1996. For the anthology, Haritschelhar chose his translation into French of verses by Etchahun (*Abaide delezius huntan [To This Sweet Tune]*). In his introduction to the anthology, Juan Mari Lekuona (first president and also honorary member of EIZIE) praises the precision, richness and skill with which Haritschelhar approached the literary tradition of the northern dialects of Basque in his translations.